

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 1137

*196/2021 EBAZPENA, otsailaren 9koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Josu Mirena Etxegarai Atela jauna Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuaren Ekonomiako eta Finantzako zuzendari lanpostutik kentzeko den, erretiroagatik.*

Osakidetzako zuzendari nagusiaren uztailaren 2ko 683/2018 Ebazpenaren bidez (EHAren 139. zenbakian argitaratutakoa), 2018ko uztailaren 19an, Josu Mirena Etxegarai Atela jauna Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuaren Ekonomiako eta Finantzako zuzendari izendatu zen.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, Zuzendaritza Nagusiak hauxe

#### EBATZI DU:

Lehenengoa.– Josu Mirena Etxegarai Atela jauna Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuaren Ekonomiako eta Finantzako zuzendari lanpostutik kentzea, erretiroagatik, 2021eko urtarrilaren 31ko lanaldia bukatu zenetik, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honen berri ematea interesdunari eta Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuari.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 9a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.